

BANDOA

Herritar guztiei jakinarazten dizuet 2009ko abenduaren 3an egin zen Udalbatzarrean beste gai batzuren artean ondokoa onestu zela:

“ Villabonako eta Zizurkilgo Euskal preso politikoen senide eta lagunek antolatutako abenduaren 31an egingo den manifestazio isilari atxikimendua ematea”.

Ondorengo aldarrikatzen dutelarik:

-Espainiako eta Frantziako Gobernuek espetxe politika errotik aldatu behar dute.

-Sakabanaketak gaur eta orain amaitu behar du, euskal presoak dagozkien eskubideen jabe Euskal Herrira orain ekarri behar dituzte. Euskal Preso politikoen oinarrizko eskubideak errespetatu behar dituzte, izaera politikoa errespetatu.

-Isolaturik eta bakartasunean diren presoak, beste preso kideekin ezarriak izan behar dute.

-Biziarteko zigorra indargabetu behar dute. 40 urte arteko zigorrak, Auzitegi Gorenaren doktrinaren aplikazioa eta baldintzapeko askatasuna eragozteko neurriak bertan behera utzi behar dituzte. Ondorioz:

-Kondena Beteta duten presoak orain kaleratzea (38 preso).

-Kondizionaleko epeak bete dituztenak kaleratzea (ehundik gora)

-gaixo larri diren presoak atzerapenik gabe kaleratzea (5 preso):

- *Jon Agirre Agiriano (Langraitz)*
- *Jose Migel Etxeandia (Alcala Meco)*
- *Jose Ramon Foruria (Dueñas)*
- *Gotzone Lopez de Luzuruaga (Jaen)*
- *Juan Jose Rego Vidal (Dueñas)*
- *Espetxe arindua aplikatu dieten presoei (6 preso) ezarritako baldintzak indargabetzea, duintasunez bizi eta osasun tratamendu egokia jaso dezaten.*
- *Euskal gizarteak hitza eman du. Errespetatu egin behar dute.*

Horregatik guztiagatik, abenduaren 31an Villabonatik Zizurkilera egingo den manifestazio isilari gure atxikimendua adierazten diogu, eta, herritarrei, bertan parte hartzeko deia luzatzen diegu.

Larraulen, 2009 urteko abenduaren 21ean

ALKATEA

Xabier Mujika Pagola